ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2019IPLE0006**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZOHIKO BILKURA**

2019-07-08ko UDALEKO EZOHIKO BILKURA

Albizturren, 2019ko uztailaren 8an, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ezohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Mikel Galarza Arrue
- Alazne Urkizu Galarraga
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Unai Dorronsoro Artola
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. OSOKO BILKURAREN DATA ZEHAZTEA
3. ZINEGOTZIEN ERREGIMEN EKONOMIKOA
4. UDALA PARTE DEN ENTITATEETAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA
5. 2019KO EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA
6. ALBIZTURKO 2020KO JAI EGUN LOKALAREN HAUTAKETA
7. 2018KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA
8. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
9. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAK ONARPENA

2019-06-15eko akta aho batez onartu da.

2. OSOKO BILKURAREN DATA ZEHAZTEA

Korporazioko kideek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehena.- Udaleko Ohiko Osoko Bilkurak hileroko azken asteartean burutzea, zehazki arratsaldeko 19:00etan.

3. ZINEGOTZIEN ERREGIMEN EKONOMIKOA

Korporazioko kideek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehena.- Alkatearen ordainsaria 400 eurotakoa izatea.

Bigarrena.- Udaleko zinegotziek Osoko Bilkura bakoitzera etortzeagatik 100 euro jasotzea asistentziari lotuta.

Hirugarrena.- .- Udaleko zinegotziek Udaletik kanpo egiten diren bileratara joateagatik 30 euro jasotzea asistentziari lotuta.

Laugarrena.- Udaletik kanpo egiten diren bileratara joateko kotxea behar izanez gero kilometrajea 0,29 euro/km-ko izatea (Eudel-en gomendioa jarraituz).

4. UDALA PARTE DEN ENTITATEETAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA

Korporazioko kideek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehena.- Ondoren jasotzen diren eta Udala kiden den entitateetan honako ordezkariak izendatzea dagokien bileretan parte hartzeko:

- HAURRESKOLAK PARTZUERGOA: Larraitz Ezeiza Artola eta Alazne Urkizu Galarraga.
- TOLOMENDI MENDI ELKARTEA: Unai Dorronsoro Olarra eta Mikel Galarza Arrue.
- UDALSAREA 21: Alazne Urkizu Galarraga eta Aitziber Orbegozo Arrospide.
- TOLOSALDEKO HILTEGIA: Iñaki Orbegozo Arrospide eta Aingeru Galarraga Barandiaran.
- APATTARREKAKO INDUSTRIGUNEA S.L.: Unai Dorronsoro Olarraa eta Mikel Galarza Arrue.
- TOLOSALDEKO ZABOR MANKOMUNITATEA: Iñaki Orbegozo Arrospide eta Unai Dorronsoro Olarra.
- TOLOSALDEA GARATZEN: Unai Dorronsoro Olarra eta Mikel Galarza Arrue.
- SAIAZ MANKOMUNITATEA: Larraitz Ezeiza Artola eta Alazne Urkizu Galarraga.
- ALBIZTURKO ESKOLAKO ORGANU GORENA: Larraitz Ezeiza Artola eta Alazne Urkizu Galarraga.

Bigarrena.- Erakunde bakoitzari honen berri ematea.

5. 2019KO EGUTEGI FISKAL ONARPENA

Korporazioko kideek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehena.- 2019rako egutegi fiskala honartzea honako zehaztasunarekin:

— Uraren Tasa:

Borondatezko epea.

2019/07/15-2019/08/19

2020/01/14-2020/02/15

— Ibilgailuen zerga:

Borondatezko epea:

2019/04/15-2019/06/21

— Zaborren Tasa:

Borondatezko epea:

2019/09/16-2019/10/20

— Ondasun Higiezinen Zerga:

Borondatezko epea:

2019/05/15-2019/06/30

— Jarduera Ekonomikoen Zerga:

Borondatezko epea:

2019/10/01-2019/11/10

Bigarrena.- GAOn argitaratzea.

6. ALBIZTURKO 2020KO JAI EGUN LOKALAREN HAUTAKETA

Korporazioko kideek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehena.- 2020rako Albizturko langileentzako jai egun lokal bezala abuztuaren 17a ezartzea.

Bigarrena.- Euskal Gobernuari honen berri ematea.

7. 2018KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Alkateak 2018ko 19/2019 likidazio dekretuaren berri eman du.

2018ko emaitza 79.210,35 eurokoa izan da doitu aurretik eta 128.366,97 eurokoa doitu ondoren.

2018ko diruzaintzako gerakin gordina 315.720,69 eurokoa da eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 255.307,37 eurokoa.

Albizturko udalaren zorpetze maila %21,44koa da.

8. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2019ko 1 eta 53 bitarteko dekretuen berri eman da.

9. GALDERA ERREGUAK

- Alkteordearen aukeraketa: Alkateordea Alazne Urkizu Galarraga izango dela erabaki da.

- Tolosaldeko Zabor Mankomunitatearekin bilera: Uztailak 11an, ostegunean, izango da 13:00tan eta Iñaki eta Alazne bertaratuko dira.

- Abokatua eta Imara-ren zerbitzua: Mikel Galarza Arrue-ren “contencioso-administrativo”-a amaitu arte Aitor Gabilondo izango da Albizturko Udaleko abokatua. Ondoren, beharren bat sortzen denean erabakiko da abokatu berdinarekin jarraitzen den edo beste baten zerbitzuak kontratatzen diren.

Imara eta Albizturko Udalaren arteko kontratua uztailak 31n amaitzen da eta 6 hilabetez luzatzea erabaki da. Izandako esperientziaren arabera erabakiko da kontratua luzatu edo beste norbait kontratatu behar den.

- Ur ihesa: Albiztuzko etxe bateko hodietan ur ihesa izan dute eta asko igo zaie uragatik ordaindu beharreko kopurua. Arazoa azkar konpondu dutenez aurreko urteko kontsumoaren bikoitza kobratzea adostu da.

- Kutxabank-eko ordezkariarekin bilera: Kutxazain automatiko kentzeak herrian sortu duen ezinegona ikusirik Kutxabank-eko ordezkariari bilera eskatzea erabaki da.

- Tolosdeko emakume etxea: Gaiaren berri eman dugu. Datorren plenorako gehiago sakondu eta erabakiren bat hartzekotan geratu gara.

KONTUEN BATZORDE BEREZIA

1.- 2018ko kontu orokorraren txostenaren argitarapena onartzea.

Batzordeak aho batez honakoa onartu du:

Lehena.- 2018ko kontu orokorraren txostena jende aurrean jartzea GAOra bidaliaz.

Osoko bilkura, 21:45etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2019ko uztailaren 11n

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 13:17:11 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:28:52 +02'00'